

ORDIZIA ▶ GIZARTEA

Oiangu Bizirik: «Epaitegietan dago auzia, pisuzko arrazoiak baitaude proiektua gelditzeko»

Arartekoak Oianguko auzia ikertzen ez jarraitzea erabaki du, epaitegian dagoela esanez; baina kontratua baliogabetzeko gomendatu dio bigarren aldiz Udalari

MAIDER DEL OLMO

Aurrera doa Oianguko auzia. Eta aurrera doa baita ere Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak Udalaren legitimizazioaz jarritako errekurtsioa, tramitera onartu dutena. Plataformaren ustez sobera arrazoi daude parkeko egitasmoa (golf zelaia, igerilekua, paintball-a...) bertan behera uzteko, eta proiektua gelditzea eskatu dute. Hainbat ekintza ere antolatu dituzte hurrengo egunetarako.

Plataformako kideek prentsaurrekoan Arartekoak Oianguko parkeko kontzesioari buruz idatzitako txostenari (2006ko otsailekoa) erantzun diote. Arartekoak, bigarren aldiz, kontzesioaren kontratua baliogabetu dezala eskatu dio Udalari, baina ez du auziarekin jarraituko. Udalak eskatuta, Arartekoak auziarekin ez segitzea erabaki baitu, gaia epaitegietan dagoela argudiatuz.

Ondorio horrekin ez dator bat Oiangu Bizirik, eta Arartekoak bere gomendioa publiko egin dezakeela uste du, epaitegietan tramitera onartu duten auzia ez baita kontzesioari buruzkoa, baizik legitimitate eskatuz jarri dutena.

Oiangu parkeko jatekua daraman enpresaz ere hainbat zalantza agertu zituzte agerraldian. Imanol Otegi Oiangu Bizirikeko kidearen arabera «gorabeherak» daude, orain jate-



Zurutza (atzean), Otegi eta Etxeberria Barrenan. M. DEL OLMO

txea kudeatzen duen enpresa ez baita kontzesioa hartu zuen bera. Informazio falta salatuta dute.

Horrekin batera, parkean altxa nahi duten hesiaz ere Udalak ez duela ezer esaten adierazi du plataformak: «Sei edo

zazpi metroko sarea egin nahi dute, baina Udalak ez du horren inguruan inongo informaziorik ematen».

Hurrengo egunetarako Goierriara begira ekitaldiak antolatu dituzte Oiangu Bizirik taldeko kideek. Euren lana eskualdera

zabaltzea erabaki dutela azaldu du Jone Etxeberria. Helburu horrekin harremanetan jarri dira Goierriko hainbat gizarte eragileekin. Era berean, hitzaldiak eskainiko dituzte hainbat herritan. Lehenengo hitzordua Idiazabalen izango da, ostiralean, 19:00etan, gaztetxean. Egitasmoaren berri emanez, Beasainen eta Lazkaon ere izango dira hurrengo egunetan.

Goierriko Kastaren saioa

Eskualdeko hainbat idazle biltzen dituen Goierriko Kasta ekimenak bere ekarpena egin dio Oiangu Bizirik taldeari. Errezitaldia prestatu dute, Oianguri buruzko era askotako testuekin. Lanak liburuxka batean bildu dituzte, eta kalean izango da laster. Oianguren inguruan prestatu duten emanaldia bihar izango da, 19:30ean Barrena kultur etxean. Pello Ramirez musikariak ere parte hartuko du.

Emanaldiaren aurkezpena Oier Zurutza gazteak egin zuen. Ataundarrak herritar denak gonbidatu zituen biharko saiora, ondo pasako dutela ziurtatuz. Goierriko Kastak auziaren inguruan bere egin duen lema agertu zuen jendardurrean, liburuxkaren azalean jarri duten idatzian: «Ez gaude garapenaren aurka itsu, desarrollismo itsuaren kontra baizik».

ORDIZIA ▶

Santa Barbarara joango dira mendizaleak

Ordiziako Mendizaleak elkarteak irteera antolatu du larunbaterako. Honako ibilaldia egingo dute: Oria-Santa Barbara-Martindegi-Santiamendi eta Perurena. Elkartearen egoiztatik aterako dira, goizeko 08:00etan. Jendeari ordurako agertzeko eskatu diote.

ORDIZIA ▶

EHBEk bihar batzarra egingo du Barrenan

Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak bihar arratsaldeko 19:00etan batzar informatiboa egingo du Barrena kultur etxean. Euskal curriculumaren alde lanean ari da EHBE, gaiaren inguruan ekarpenak biltzen. Biharko batzarrera joateko deia egin die herritarrei.

ORDIZIA ▶

Hainbat ikastaro eskainiko dituzte KZgunean

Martxoan hainbat ikastaro antolatu ditu KZguneak. Banaketxeetako operazioak egiteko ikastaroa hasiko da hilaren 27an. Bi egunetan egingo da segidan, goizeko 09:00etatik 11:00etara. Iru-dien tratamendu digitalaz ere antolatu dute ikastaroa, martxoaren 29an eta 30ean, 09:00etatik 11:00etara. IT txartela lortzeko aukera hilaren 24an egongo da. Informazio gehiago 943 88 43 78 telefono zenbakian jaso daiteke, edo Domingo Unanue enparantzako 8 zenbakitik pasatu.

OLABERRIA ▶

Eskulanen ikastaroa bihar hasiko da

Gaur amaituko da epea eskulanen ikastaroan izena emateko. Kurtsoa bihar arratsaldean hasiko da. Arantzazu Lizarralde izango da ardura-duna. Saiok astean egun batean izango dira, ostegunetan, arratsaldeko 14:30etik hasita 17:00etara. Hogeita hamar ordu iraungo du guztira.

Udalak azaldu du Oianguko proiektua aurrera doala

Ordiziako Udalak agiria kaleratu du, Arartekoak Oianguko auziarekin ez jarraitzeko hartutako erabakiaz. Parkeko proiektuak aurrera jarraitzen duela azaldu du, bide batez.

«Sarritan esan du Udalak ez zuela Arartekoaren lanaren gaineko baloraziorik egingo, harik eta erakunde horrek behin betiko erabakia ematen zuen arte behintzat», dio Udalak atera duen oharrak.

«Udalak berak zalantzan jartzen du, udal Osoko Bilkurak bere garaian zalantzan ja-

rri zuen bezala, plataformaren legitimizazio aktiboa kontratazio-espeditentean. Ondoren, Arartekoak okerreko premisa oinarri hartuta, bere esku-hartzea justifikatzen hasi da; kontratazio-espeditentea eta Plan Bereziaren tramitazio-espeditentea nahasten dituelako».

Udalak akats batzuk edo prozesurako akatsak egon daitezkeela onartzen duen arren (udal zerbitzu teknikoaren eta Udalaz kanpoko aholkularitzako irizpideetan oinarrituta), ez ditu Arartekoak eman-

dako iritzi berdinak kaleratu, agirian dioenez.

«Lizitazio espeditentean Arartekoak ikusten dituela esaten duen irregulartasunak baleude, beste lizitatzaila bat kalteu zezaketen bakar-bakarrik, inoiz ere ez plataforma, eta horrek esku har dezake eta bere eskubideaz balia daiteke Plan Bereziaren tramitazioan, gai urbanistikoa herri-ekimena espreski airtortzen duelako».

Arartekoak ez duela inoiz proiektuaren beraren gaineko

iritzirik eman uste du Ordiziako Udalak.

Bestalde, kontratuaren xedea mugatzeaz, pleguaren lehen klausulan ezartzen dela kontratuaren zuzeneko xedea dio. «Parkearen eta Oianguren eraikinaren ustiapena da eta indarrean dagoen araudi urbanistikoa araberakoa. Gu-txienekoa bermatuz gero aisia, kirol, turismo eta atsedenlekurako aukerak dituzten proiektuak aintzat hartuko direla dio Arartekoak, ingurumena hobetzearekin bat egiteko». ◀